

[Cast/Eusk] Txikito ha ganado la batalla

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN :: 08/06/2019

La cárcel le ha informado de que no tendrá que ir esposado a las visitas

Castellano

El preso político de Lezama, Iñaki Bilbao “Txikito”, ha ganado la batalla a la cárcel de Puerto III. Hace pocos días que el Subdirector de Seguridad de la cárcel le hizo saber que para acudir a las visitas tendría que hacerlo esposado. Txikito anunció que no iba a aceptar semejante medida y que a partir de ese momento renunciaba a las visitas.

Sin embargo, el pasado jueves el Subdirector de Seguridad se presentó en el módulo de aislamiento para decirle a Txikito que suspendían dicha medida. Hay que tomar con prudencia las palabras del carcelero, a expensas de confirmarlas en la próxima visita de Txikito.

La postura de dignidad de Txikito ha hecho retroceder a la cárcel, pero no olvidemos en que circunstancias mantienen aún al preso político de Lezama. Txikito lleva más de 35 años en la cárcel, los últimos 12 en el módulo de aislamiento de la cárcel de Puerto III. Hay que aclarar que en el módulo de aislamiento de la cárcel de Puerto III hay 10 galerías, la mitad de ellas de cinco celdas y la otra mitad de diez, las cortas a un lado y las largas al otro. También la longitud de cada patio se corresponde con las celdas, es decir, con la de diez o cinco celdas.

Asimismo, hay que subrayar que los presos que permanecen en el módulo de aislamiento de esa cárcel solo lo abandonan en caso de tener que acudir a la enfermería, y que para acudir a las visitas ni siquiera eso, ya que las hacen en el mismo módulo, aunque si tienen que salir de su galería.

A la hora de tomar esta medida la cárcel puso excusas sobre seguridad, y decimos excusas porque las galerías son auténticos bunkers: en cada galería hay dos cámaras para filmar, también los pasillos que van de galería a galería son grabados durante las 24 horas del día.

Nunca hay contacto directo entre los carceleros y los presos porque siempre están separados por alguna puerta, valla, cristal blindado o rastrillo (puerta corrediza), salvo cuando van a las visitas, a las que acuden acompañados por varios carceleros. Por último, un preso que se encuentra en la quinta galería tiene que pasar ocho puertas y rastrillos para llegar desde su celda al locutorio de visitas, y el que tiene delante nunca se abre hasta que el que ha dejado atrás se cierra.

Hace ahora dos años le aplicaron a Iñaki la primera fase del primer grado, el más duro de los que se pueden aplicar en la cárcel (algunos meses más tarde le volvieron a pasar a la segunda fase del primer grado), y además le prohibieron comunicarse con tres de sus allegadxs con la intención de aislarlo aún más.

Por otro lado, debemos recordar que la de Puerto III ha sido una auténtica cárcel de exterminio desde el mismo momento de su apertura, y que desde el principio ha sido utilizada para experimentar con los presos políticos vascos. El régimen impuesto es de sobra conocido por su dureza, y los carceleros lo son por su actitud militante fascista. En mayo de 2010 le dieron una paliza al elorriarra Arkaitz Bellon, quien después aparecería muerto en Puerto I, y el año pasado murió en ella, asesinado por la política penitenciaria, Xabi Rey, además dos presos sociales.

El de Puerto III es uno de los ejemplos más claros de que la cárcel es una institución que pretende romper a la persona y que los presos políticos renuncien a su militancia, dejando al descubierto que los mayores delincuentes y asesinos son aquellos que sustentan las cárceles.

En el día de hoy queremos aplaudir el ejemplo de Txikito y queremos hacer un llamamiento a seguir luchando junto a él. ¡La lucha es el único camino!

En Euskal Herria, a 8 de junio de 2019.

Euskera

Iñaki Bilbao “Txikito” Lezamako preso politikoak bataila irabazi dio Puerto III-ko kartzelari. Bisitetara joateko eskuburdinak jarrita atera beharko zuela jakinarazi zion orain egun gutxi kartzelako Segurtasun Zuzendariordeak Txikitorri. Txikitok iragarri zuen ez zuela horrelako neurririk onartuko eta handik aurrera bisitei uko egingo ziela.

Alabaina, pasa den ostegunean Segurtasun Zuzendariordea Puerto III-ko isolamendu modulura joan zen Txikitorri esatera neurria bertan behera uzten dutela. Tentuz hartu beharreko hitzak dira kartzelariarena, Txikitoren hurrengo bisitan konfirmatu beharrekoak.

Txikitoren duntasun jarrerak kartzelak atzera egin behar izatea eragin du, baina ez dezagun ahaztu ze baldintzetan mantentzen duten Lezamako preso politikoa oraindik ere. Txikitok 35 urte baino gehiago daramatza kartzelan, azken 12ak Puerto III-ko isolamendu moduluan. Argitu behar dugu Puerto III-ko kartzelako isolamendu moduluan 10 galeria daudela, erdia bost ziegetakoa eta beste erdia hamarrekoa, laburrak alde batetan eta luzeak bestean. Bakotzaren patioaren luzera ere ziegen araberakoa da, hamar ala bost ziegen luzerakoa alegia.

Era berean, azpimarratzeko da kartzela horretako isolamendu modulutik erizaindegira joan behar izatekotan baino ez direla irteten bertako presoak, eta bisitetara joateko ezta hori ere ez, moduluan bertan egiten baititzte. Galeriatik, ordea, bai irten behar dute

Neurri hori hartzeko orduan segurtasun aitzakiak jarri zituen kartzelak, eta aitzakiak diogu isolamendu galeriak benetako bunkerrak direlako: galeria bakotzean filmatzeko bi kamera daude, eta galeriatik galeriara joateko pasabideak ere filmatzen dituzte eguneko 24 orduetan zehar.

Inoiz ez dago kontaktu zuzena kartzelarien eta presoen artean, beti dagoelako euren artean ate, hesi, kristal blindatu edo burdin sareren bat (irristailu-atea), bisitetara joaten direnean

salbu, hainbat kartzelarik lagunduta baitoaz. Azkenik, bosgarren galerian dagoen preso batek urrutiko kontrol bidezko zortzi ate eta burdin sare igaro behar ditu bisitarako lokutoriora iristeko, eta aurreko ez da inoiz irekitzen atzean utzi dutena ixten den arte.

Orain dela bi urte lehenengo graduaren lehenengo fasea aplikatu zioten Iñaki Bilbaori, kartzelan aplikatu daitekeen gogorrena (hilabete batzuk geroago lehenengo graduaren bigarren fasera pasatu zuten berriz), eta gainera hiru hurkorekin komunikatzea debekatu zioten are eta gehiago isolatu nahian.

Bestalde, gogorarazi behar dugu Puerto III-ko kartzela benetako sarraski espetxea izan dela ireki zuten une beretik, eta euskal preso politikoekin esperimentatzeko erabili egin dutela hasieratik. Ezarritako erregimena soberan ezaguna da bere gogortasunagatik, eta bertako kartzelariak bere jarrera militante faxistagatik. 2010eko maiatzean Arkaitz Bellon elorrioarra (gerora Puerto I-ean hilik agertu zena) jipoitu egin zuten, eta iaz Xabi Rey hil zen bertan espetxe politikak eraila, baita bi preso sozial ere.

Kartzela pertsona apurtzea eta preso politikoek bere militantziari uko egitea bilatzen duen instituzio bat dela ezin argiago erakusten duen adibidea da Puerto III-koa, delinkuente eta hiltzailerik handienak kartzelak sustengatzen dituzten horiek direla agerian utziz.

Gaurkoan Txikitoren jarrera eredugarria txalotu eta berarekin batera borrokan jarraitzeko deia egin nahi dugu. Borroka da bide bakarra!

Euskal Herria, 2019ko ekainaren 8a.

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-txikito-ha-ganado>